



KURSAAL ESZENA

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



www.kursaal.eus

GUSTAV MAHLER JUGEND- ORCHESTER: "SINFONÍA N° 3", MAHLER

Auditorio **Kursaal** Auditorioa

Jonathan Nott, zuzendaria

© Guillaume Megevand





KURSAAL ESZENA

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Centro Kursaal Zentrua

Zurriola Hiribidea, 1
20002 Donostia / San Sebastián
Tel.: 943 003 180
Fax: 943 003 181
email: kursaaleszena@kursaal.org
www.kursaal.eus

Babesleak / Patrocinadores:

euskaltel

fundación



Laguntzailea / Colaborador:

elektra

Enpresa Elkartuak / Empresas Asociadas:

kutxa

GIROA VEOLIA

herza
BRANDING
& COMUNICACIÓN

telesonic
TECNOLOGÍA AUDIOVISUAL

ArcelorMittal

Komunikabide Elkartuak / Medios Asociados:

SE2

ESTRATEGIA

Gipuzkoa
Eres lo que lees

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



GORAIN
GIPUZKOA



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

ABONO MÚSICA CLÁSICA MUSIKA KLASIKOKO ABONUA

Concertgebouw Chamber Orchestra
Ronald Brautigam, pianoa
Michael Waterman, kontzertinoa eta
zuzendaria
Webern, Mozart, Dvorak, Van Bree
Apirila 07 Abril / 19:00

Akademie für Alte Musik Berlin:
"Música acuática"
Georg Kallweit, kontzertinoa eta
zuzendaria
Haendel, Marais, Telemann, Delalande
Maiatza 25 Mayo / 20:00

"Mendi mendiyán", Usandizaga
Calixto Bieito, eszena zuzendaria
Erik Nielsen, musika zuzendaria
Bilbao Orkestra Sinfonikoa
Sociedad Coral de Bilbao
Nueva producción del Teatro Arriaga
de Bilbao
Ekaina 29 Junio / 20:00

Gustav Mahler Jugendorchester

Orfeón Donostiarra,

J.A. Sáinz Alfaro, abesbatza zuzendaria

Donostiako Orfeoi Txikia,

Klara Mendizabal / Esteban Urzelai,
abesbatza zuzendariak

Jonathan Nott, zuzendaria

Elena Zhidkova, mezzosopranoa

Martxo / Marzo

Osteguna **07** Jueves / **20:00**

Auditorio **Kursaal** Auditorioa

Gustav Mahler (1860-1911)

SINFONÍA N° 3 EN RE MENOR (95')

Kräftig. Entschieden

Tempo di menuetto. Sehr mäßig

Comodo. Scherzando. Ohne Hast

Sehr langsam. Misterioso

Lustig im Tempo und keck im Ausdruck

Langsam. Ruhevoll. Empfundener

Atter aintziraren ondoko etxola batean sortu zuen Mahlerrek bere obraren zati handi bat, Austriako Alpeetako txoko idiliko batean. Etxola hura Franz Löschekek eraiki zion 1894an, eta hark kontatu ohi zuen nola Mahlerrek “beti esaten zuen lakuak bere hizkera propioa zuela, aintzira mintzatu egiten zitzaiola. Ostatutik ezin omen zuen aditu, eta, hortaz, etxe txiki bat behar zuen uraren bazter-bazterrean. Aintzira entzuten zuenean, errazago konposatzen zuen, eta obrak guztiz osatuta ateratzen zitzaizkion burutik”.

3. *Sinfonia* izan zen, 1896an amaitua, laku hartatik ‘jaino’ zen lehen lana. Uda hartan Bruno Walter bisitan joan zitzaion, eta, inguruaren edertasuna miresten hasi zelarik, Mahlerrek esan omen zion ez galtzeko denborarik lekuari begira. “Alferrik da; oso-osorik jaso dut nire Hirugarrenean”, halaxe esan omen zion.

“Imajina ezazu obra bat halako handitasuna duena non unibertsoa osorik islatzen baitu”, idatzi zion Mahlerrek Anna von Mildenburgi. Sei mugimenduetako bakoitza unibertso horretako parte banari mintzatzen zaio: naturaren indarrei, landareei, animaliei, gizakiari, espirituei... Harik eta azken mugimenduan, ikuspegi panteista horren gailurrean, Mahlerrek maitasunari kantu bat eskaintzen dion arte, haren munduari zentzua ematen dion eta bateratzen

duen materia baita. Schoenbergekek Vienan entzun zuen 3. *Sinfonia*, 1904an, eta hunkiturik, ondoko hitz hauek idatzi zituen: “Idealen aldeko borroka sentitu nuen; sentitu nuen etsipenak jota dagoenaren oinazea; ongiaren eta gaizkiaren arteko lehia ikusi nuen; ikusi nuen gizon bat emozioen ekaitz batek astintzen zuena, bere barneko harmonia konkistatzeko borrokan. Gizaki bat, drama bat, egia, egiarik errukigabeena sentitu nuen!”.

Mahler eta hark munduarekiko zuen ikuspuntu globala inspirazio iturri izan ziren Claudio Abbadorentzat, Gustav Mahler Jugendorchester sortu zuenean. Lehen bira 1987ko Pazko astean egin zuen orkestrak, egile bohemioren 1. *Sinfoniarekin*. Talentu berriak bultzatzeaz gain, Abbadok berebiziko lana egin zuen austriar gazteek Txekoslovakia eta Hungariako errepublika sozialista ohietako kideekin jotzeko aukera izan zezaten. Honela, GMJO izan zen Ekialdeko Blokeko herrialdeetan entzunaldi irekiak eman zituen lehen nazioarteko gazte orkestra. 1992an, Europa osoko hogeita sei urtera arteko gazteei zabaldu zitzairen formazioa.

Mikel Chamizo

ARAU OROKORRAK

Programa honek aldaketak izan ditzake. Kursaal Eszenak ez du bere gain erantzukizunik hartuko programa, interprete edo datetan aldaketarik gertatuz gero. Kontzertu bat bertan behera uztea izango da sarreraren zenbatekoa itzultzeko arrazoi bakarra.

Zaratustraren gauerdiko abestia

("Also sprach Zarathustra", Friedrich Nietzsche)

Gizona! Zaude erne!
Zer dio gauerdi sakonak?
Lo nengoen, lo nengoen.
Eta lo sakonetik esnatu naiz.
Mundua sakona da,
sakonagoa da egunak uste duena baino.

Sakona da haren sufrimendua.
Sakonagoa da gozamina, ordea,
bihotzeko samina baino:
Sufrimenduak dio: zoaz!
Baina gozamen orok betikotasuna
desiratzen du.
Betikotasun sakon, sakona du desiratzen!

Hiru aingeruk abesti gozo bat abestu zuten

("Des Knaben Wunderhorn")

(*Bim bam!*)

Hiru aingeruk abesti gozo bat abestu zuten
eta zeruak pozik durundatu zuen;
hainbeste atsegindu ziren aingeruak abesti hartan
non Pedro bekatuz libre geratu baitzen.

Eta Jesus mahaian eseri zenean
bere apostoluekin afaltzera,
hona nola mintzatu zen Jauna: "Zergatik
zaude zu hemen?
Nik begiratzen dizudanean, zu negarrez
hasten zara."

"Eta zergatik ez dut negar egingo, ene
Jainko errukitsua...
(*Ezin duzu negarrik egin!*)
Hamar aginduak urratu ditut,
eta negar batean noa, guztiz samindurik.
(*Ezin duzu negarrik egin!*)
Ai, zatoz eta erruki zaitez nitaz!"

"Hamar aginduak urratu dituzu,
eta, hortaz, belauniko jarrita, egin otoitz
Jainkoari.
Maita ezazu Jainkoa bitzita osoan
Eta zeruko poza eskuratuko duzu".

Zeruko poza hiri zoriontsua da.
Zeruko pozak mugarik ez du.
Zeruko poza Pedrori eman zion
Jesussek, eta gu guztioi, betiko aintza izan
dezagun.



Gran parte de la obra de Mahler vio la luz en una cabaña junto al lago Atter, un idílico rincón de los Alpes austriacos. Según Franz Lösch, quien le construyó esa cabaña en 1894, Mahler “siempre decía que el lago tenía su propio lenguaje, que el lago le hablaba. Desde la posada no podía oírlo, así que necesitaba tener una pequeña casa justo en la orilla. Cuando escuchaba el lago componía con más facilidad y las obras fluían completamente formadas desde su cabeza”. La *Sinfonía n.º3*, finalizada en 1896, fue la primera creación que “nació” por completo del lago. Cuando Bruno Walter fue a visitarle ese verano y se mostró admirado por la belleza del entorno, Mahler le recomendó que no perdiera el tiempo observándolo. “Es inútil; lo he recogido íntegramente en mi Tercera”, aseguraba.

“Imagínate una obra de tal magnitud que llegue a reflejar el universo entero”, le escribió Mahler a Anna von Mildenburg. Persiguiendo tal idea, cada uno de los seis movimientos habla a una parte de ese universo: a las fuerzas de la naturaleza, a las plantas, a los animales, al hombre, a los espíritus... Hasta que en el último movimiento, cúspide de esta visión panteísta, materia que da sentido y unifica su mundo, Mahler

eleva un canto al amor. Schoenberg escuchó la *Sinfonía n.º3* en Viena en 1904 y, conmovido, anotó lo siguiente: “Sentí la lucha por los ideales; sentí el dolor del desilusionado; vi a las fuerzas del bien y del mal enfrentarse entre sí; vi a un hombre zarandeado por una tormenta de emociones luchando por conquistar la armonía interna. ¡Sentí a un ser humano, un drama, la verdad, la más despiadada verdad!”

Mahler y su visión global del mundo fueron fuente de inspiración para Claudio Abbado cuando decidió fundar la Gustav Mahler Jugendorchester, que abordó su primera gira en la Pascua de 1987 con la *Sinfonía n.º 1* del autor bohemio como pieza central. Además de apoyar a los nuevos talentos, Abbado puso especial interés en que los jóvenes austriacos pudieran tocar con sus colegas de las antiguas repúblicas socialistas de Checoslovaquia y Hungría. De este modo, la GMJO fue la primera orquesta internacional de jóvenes que ofreció audiciones abiertas en los países del antiguo Bloque del Este. En 1992, la formación se abrió a músicos de hasta veintiséis años provenientes de toda Europa.

Mikel Chamizo

NORMAS GENERALES

Programa susceptible de modificación. Kursaal Eszena declina cualquier responsabilidad en el caso de modificación de los programas, intérpretes o fechas de los conciertos. La suspensión de un concierto, será la única causa para la devolución del importe de las localidades.

Canción de la medianoche de Zaratustra

(De "Also sprach Zarathustra", Friedrich Nietzsche)

¡Oh hombre! ¡Pon atención!
¿Qué es lo que dice la profunda medianoche?
¡Yo dormía, yo dormía!
¡Y desperté de un sueño profundo!
¡El mundo es profundo!
¡Y más profundo de lo que el día recuerda!

¡Profundo es su sufrimiento!
¡El gozo es aún más profundo que las penas del corazón!
El sufrimiento dice: ¡Márchate!
Todos los gozos quieren eternidad.
¡Quieren una profunda, muy profunda eternidad!

Tres ángeles cantaron una dulce canción

(De "Des Knaben Wunderhorn")

(Bim bam!)

Tres ángeles cantaron una dulce canción que hizo que el cielo resonara de gozo; tanto se regocijaron los ángeles en su canción, que Pedro quedó libre de pecado.


Y mientras Jesús se sentó a la mesa a cenar con sus doce discípulos, así habló el Señor. "¿Por qué estás aquí?; cuando yo te miro, tú lloras".

"Y por qué no he de llorar, mi Señor misericordioso...
(¡No puedes llorar!)
He pecado contra los Diez Mandamientos, y voy llorando desconsoladamente por mi camino.
(¡No puedes llorar!)
¡Ah, ven y ten piedad de mí!"

"Si has pecado contra los Diez Mandamientos, arrodíllate y rézale a Dios. Ama a Dios toda tu vida, y alcanzarás el gozo celestial".
El gozo celestial es una ciudad feliz.

El gozo celestial no conoce fin.
El gozo celestial fue concedido por Jesús a Pedro y a todos nosotros para nuestra eterna felicidad.





Urte osoan bizi dugu musika

Gipuzkoan musika bizi dugu
barren-barrenetik.

Eta Kutxaren Gizarte Ekintzatik kultura
bultzatzen dugu urtean zehar antolatzen
diren jarduera eta ekitaldi ugari babestuz.

Era guztietako kultur adierazpenak
bultzatzea gure gizarte-konpromisoaren
parte ere badelako.

